

Annie Ernaux, *Emakume izoztua*

Emakume hauskor eta lurrintsuak, esku leuneko maitagarriak, ordena eta edertasuna isilean sorrarazten dituzten etxeko hats txikiak, ahotsik gabeko emakumeak, otzanak (bilatu arren ezin ditut halako asko topatu neure haurtzaroko paisaian; ezta hitsago, arruntagoak diren gizarte-maila apalagoetan ere), harraskak ispilu bat bezain garbi uzten dituzten emakumeak, bazkari-hondarren maneatzailleak, edota eskolatik irteteen txirrina baino ordu laurden bat lehenago hantxe egoten direnak, etxeko egin behar guztiak beteta, emakume ongi antolatuak hil arte. Nire emakumeek, denek, ozen hitz egiten zuten, gorputz axolagabeak zituzten (astunegiak edo lauegiak), hatz zarpailduak zituzten, ez zuten koloreterik erabiltzen, edo alderantziz, gehiegi erabiltzen zuten, masailetan eta ezpainetan ateratako orbanak balira bezala. Sukaldaritzaz zekiten guztia untxia saltsan eta arroz-pastela besterik ez zen (lirdingatsu xamarra geratzen zitzaiena, bide batez esanda), eta ez zuten sumatu ere egiten etxeko hautsa egunero garbitu behar zenik —lan egin zuten edo lan egiten zuten soroetan edo lantegietan, edo goizetik gauera zabalik egoten ziren denda txikietan—. Han ziren atsoak ere, igande arratsaldeetan bisitatzen genituenak, buñueloak eta botila likorea mahaian zituztela (kafean txorrotada bat botatzeko prest beti). Emakume belztuak eta higatuak, zeinen gonei despentsan ahazturiko gurinaren usaina darien, ilea koroa moduko motots zurixka batez apaindua, zer ikusirik gabeak maitagarrien istorioak kontatuz bilobak liluratzen dituzten ipuin-kontalari eztsuekin —amonatxo deitzen zaien horiekin—. Nireak, nire izeba zaharrak, nire amona, berealdikoak ziren, ez zitzaien gustatzen umeek haien altzora salto egitea, ohitura hori galdua zuten, musu bat etorreran eta beste bat despedidan, besterik ez, “Berriro hazi haiz” eta “Asko ikasiko huen eskolan”, ez zuten esateko handirik niri; gurasoekin patoisean hitz egiten zuten bizitzaren garestitzeari buruz, alokairuari buruz, hektarea-kontuei buruz, bizilagunei buruz, eta noizean behin barrezka begiratzen zidaten. Izeba Carolina, udako igandeetakoa, etxera beti itzultzen zena bizikletaz, zaparradarik txikienarekin lokatzez betetzen diren zuloz jositako bideetan barrena, hantxe, munduaren azken muturrean, larreen arrasean bizpahiru etxalde bakartu artean, lautadan.